

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak “Aniztasuna Aberastasun” I. eskola-lehiaketa antolatu du

Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako taldeek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, eta aniztasunaren eta pluraltasunaren balioa ardatz duten argazki batez eta testu batez osatuta egon behar dute

Ostirala, 2018.eko urtarrilak 19

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendaritza nagusiaren bitartez, "Aniztasuna Aberastasun" eskola-lehiaketa antolatu du, aniztasunari buruz gogoeta egitera eta pertsona desberdinak errespetatzen dituen gizarte bat eraikitzean ikuspegi inklusiboa eta positiboa lantzerantz bultzatzeko.

Aurten egingo da lehenengo aldiz lehiaketa, eta Lehen Hezkuntzako (3., 4., 5. eta 6. mailak), Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Oinarrizko eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako Nafarroako taldeei zuzenduta dago deialdia. Haren asmoa da bizikidetzaren errespetatzen duen gizarte plural bateko herritar izateak ematen dituen aukerak balioestea.

Parte-hartzaileek argazki bat egin beharko dute, landu beharreko gaia kontuan hartuta, eta 80-100 hitzeko testu bat sortu beharko dute (testu deskribatzailea, testu literarioa, ipuin laburra, olerkia, bertsoa...), argazkian oinarritua eta lehiaketaren helburuekin bat egiten duena.

Lanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu daitezke, eta pazyconvivencia@navarra.es edo bizikidetza@navarra.es helbidera bidali behar dira 2018ko martxoaren 9ko 14:00ak baino lehen.

Lan-proposamen hau taldean garatu beharrekoa da, eta ikasgelako ikasle guztiek hartu behar dute parte, irakasle arduradun baten laguntzaz.

Lehiaketaren helburuetako bat eskola-taldeen pertsona arteko harremanak indartzea da, bai eta proposamenak, iritziak eta ideiak emanaraztea eta ikaskideenak errespetatzea ere.

Balorazioa egitean, epaimahaiak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: argazkiaren originaltasuna proposatutako gaiarekiko, argazkiaren kalitatea, testua zenbateraino datorren bat irudiarekin, testuaren literatur kalitatea, eta lanak bere osotasunean ematen duen mezua positiboa eta konstruktiboa. Zuzendaritza Nagusiak zenbait sari banatuko ditu, apirilean izango diren Bake eta Bizikidetzaren Jardunaldien baitan antolatuko den ekitaldi batean.

Lehiaketaren oinarriak [esteka](#) honetan kontsultatu daitezke.